

Arabako Artxiboak kontserbatzen diren Andra Maria Zuriaren marrazkirik zaharrenetako baten faksimilea eman dio Andra Maria Zuriaren Kofradiari

1721ean grabatu zuten, eta Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak eman du

Gasteiz, 2021eko uztailaren 22a. Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak zaindariaren irudiaren 1721eko grabatuaren faksimile bat eman die Andra Maria Zuriaren Kofradiaren ordezkariari. Andra Maria Zuriaren kontserbatzen den marrazkirik zaharrenetako bat da eta Probintzia Artxiboan dago.

Ilustrazio hori Zaytorda presbitero bilbotarrak egin zuen kofradeek hala eskatuta, eta Ama Birjinaren irudi gotikoa erakusten du haren lehen horma hobian, hain zuzen Done Mikel elizako sakristiaren kanpoaldeko horman, Aihotz plazara joateko eskaileren alboan.

1787an gaur egungo horma hobira eraman zuten irudia, eliza atarira, eta 2008an erreplika bat jarri zuten haren lekuan, zaharberritzeko. Andra Maria Zuriaren irudia 2008tik 2017ra bitartean zaharberritu zuten Espainiako Kultura Ondarearen Institutuak eta aldundiko Zaharberrikuntza Zerbitzuak.

Agiri interesgarri horren oso kopia gutxi iritsi zaizkigu, eta kofradiak berak ez dauka ale bat bera ere bere artxibo historikoan. Maiatzean eta ekainean Gasteizen egindako “Hirirako argiak. Argiontzien arrosarioaren prozesioaren 125. urteurrena” izeneko aldi baterako erakusketa zela eta, Arabako Artxiboak ikusgai jartzeko kontserbatzen duen jatorrizkoa utzi zion kofradiari.

Ana del Valek jatorrizkoaren berdin-berdina den faksimilea eman dio opari kofradiari, “Arabako Foru Aldundiak Gasteizko eta Arabako gizarteko erakunde garrantzitsuenetako batekin duen lankidetzara iraukorren erakusgarri”.